

Euskal AEko zerbitzuen sektorearen salmenta- indizea %2,7 gehitu zen 2015eko bigarren hiruhilekoan


Beste Zerbitzuetan %4,8ko gehikuntza eta Merkataritza %1,2

Eustaten datuen arabera, 2015eko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko zerbitzuen sektoreko salmenta-indizea %2,7 nominala gehitu zen, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %1,4 nominala gehitu da, urtaro-eraginak kenduta.

Merkataritzaren salmenta-indizea %1,2 nominala gehitu da; indizearen parte diren Beste Zerbitzuetan %4,8, 2014ko aldi beraren aldean.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizearen urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



Merkataritzaren barruan deigarria da Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketaren gehikuntza nominala, %12,6. Handizkako Merkataritzan %0,6ko gehikuntza; Txikizkakoan %0,5eko jaitsiera.

Beste zerbitzuetako sektoreen artean gehikuntzak daude Informazio eta Komunikazioetan, %6,1; Ostalaritzan %5,7; Garraio eta biltegiatzean, %5,3; Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan, %4,8; Jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarrietan, %0,0.

Hiru lurraldeetan gehitu ziren tasak: Araban %4,5; Gipuzkoan %3,1; Bizkaian %1,9.

Termino errealetan, prezioen eragina kenduta, zerbitzuen sektorearen salmentak %3,0 gehitu ziren bigarren hiruhilekoan.

2015eko bigarren hiruhilekoan, 2014ko hiruhileko beraren aldean eta prezio finkoetan, Merkataritzaren salmenta-indizea %2,2 gehitu da, eta Beste Zerbitzuen %4,4.

Merkataritzan urte arteko positiboa sektore guztietan: Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa %12,8 gehitu da, Handizkako merkataritzaren salmenta-indizea %1,5, Txikizkakoarena %0,5, dena termino errealetan.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen koiantura-indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa (p). II/2015

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	2,7	1,4	3,0	1,1
Araba	4,5	1,3	5,1	1,2
Bizkaia	1,9	1,1	2,1	0,9
Gipuzkoa	3,1	1,9	3,6	1,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Merkataritza	1,2	0,9	2,2	0,8
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	12,6	1,3	12,8	-0,3
Handizkako merkataritza	0,6	1,3	1,5	1,0
Txikizkako merkataritza	-0,5	0,6	0,5	-0,2
Bestelako zerbitzuak	4,8	2,4	4,4	1,7
Garraioa eta biltegiatzea	5,3	2,2	4,6	1,7
Ostalaritza	5,7	3,0	5,7	3,1
Informazioa eta komunikazioak	6,1	1,8	6,4	1,4
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	4,8	2,7	4,2	2,3
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	0,0	-0,5	-1,1	-0,2
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	1,5	0,4		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiantura-indizea

Beste zerbitzuetan, euro finkoetan: Informazio eta komunikazioen salmenta-indizea %6,4 gehitu da; Ostalaritzarena %5,7. Garraio eta biltegiatzearen indizea %4,6ko

gehikuntza; Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan %4,2; Jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarrietan %1,1eko jaitsiera.

Euskal AE osoan, zerbitzuen sektorean okupatuen kopurua %0,4 gehitu da 2015eko bigarren hiruhilekoan lehenengoaren aldean; 2014ko hiruhileko beraren aldean, %1,5.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Zerbitzuen koiuntura-indizea (ZKI). [Prensa-oharrak Interneten](#)

Euskal AEko Zerbitzuen koiuntura-indizea (ZKI). [Datu-bankua](#)